



**Dispositif de certification de langue basque
OPLB-Universités : premier bilan de l'examen de niveau B1 et
recensement des certificats à l'Inventaire de la CNCP**

**Unibertsitatea eta EEPren arteko Euskara Gaitasunaren
Egiaztatzeko Dispositiboa : B1 mailako azterketaren lehen bilduma
eta agirien ofizialtzea CNCPko inbentarioan**

1/ Rappel du contexte et du cadre

Jusqu'à 2008, il existait en Pays Basque de France un diplôme dénommé EGA (Euskara Gaitasun Agiria - Certificat d'aptitude en langue basque) équivalent du diplôme EGA délivré de l'autre côté de la frontière par le Gouvernement basque dont l'organisation des épreuves et la délivrance du diplôme étaient assurées par l'antenne de Bayonne de l'Académie de la langue basque Euskaltzaindia, qui comblait un vide en l'absence de dispositif public.

Dès 2006, l'enseignement de la langue basque et son développement dans la sphère publique ou privée rendant de plus en plus nécessaire une évaluation de la maîtrise de cette langue par les scolaires, étudiants ou professionnels, les institutions s'accordaient sur la nécessité de mettre en place un dispositif de mesure du niveau de maîtrise de la langue basque.

Ainsi, le Projet de Politique Linguistique adopté à l'unanimité en décembre 2006 par le Conseil d'Administration de l'OPLB, actait la nécessité de mettre en place une certification en conformité avec le Cadre Européen de Commun de Référence (CECR) et un système d'équivalence avec les autres diplômes en vigueur de l'autre côté de la frontière et décidait de « *Définir et mettre en place, en partenariat avec les universités et Euskaltzaindia, une certification en conformité avec le CECR, et un système d'équivalence avec les autres diplômes en vigueur de l'autre côté de la frontière* » (point 3.1 du Projet de Politique Linguistique).

L'OPLB a ainsi démarré en 2008 le travail de définition et de mise en place d'un dispositif de certification garantissant l'aptitude linguistique de son titulaire, visant à offrir à toutes les personnes issues des différents systèmes d'apprentissage du basque aujourd'hui existants (enseignement scolaire, cours pour adultes, formation continue...) un outil officiel de certification, référence pour les processus de formation et la valorisation de cet apprentissage dans le monde du travail.

1/ Testuinguruaren eta koadroaren oroitarazpena

2008 arte, Euskara Gaitasun Agiria deitu diploma bazen Iparraldean, Eusko Jaurlaritzak mugaz bestalde ematen zuenaren baliokide zena. Hemengo agiriaren antolaketa eta ematearen ardurua Euskaltzaindiarena zen, Baionako ordezkartzaren eskutik, dispositibo publiko gabeziaren hutsunea betetzen zuelarik.

2006etik beretik, Euskararen irakaskuntza eta honen garapenak, eremu publiko eta pribatuan, gero eta beharrezkoago egiten zuten, eskola, unibertsitate ikasle edo profesionalen hizkuntzaren jabetzaren heinaren egiaztatzea. Instituzioek adostu zuten beraz hizkuntza gaitasunaren neurtuko zuen dispositibo bat sortzea beharrezkoa zela.

Gisa horretan, 2006ko abenduan EEPko Administrazio Kontseiluak aho batez onartu zuen Hizkuntza Politika Proiektuak finkatzen zuen, Europako Hizkuntzen Marko Bateratuaren araberrako egiaztatze dispositibo baten plantatzearen beharra mugaz bestaldeko agirien baliokideak izanen ziren agiriekin ondoko gisan : "Unibertsitateekin eta Euskaltzaindiarekin partaidetzan, Europako Erreferentziatzeko Markoarekin bat egiten duen egiaztapena definitu eta plantan jarri, mugaz beste aldean dauden agiriekin baliokidetasun sistema eraikiz".

EEPk gisa honetan hasi zuen EEPk 2008an definizio eta zertifikazio dispositibo bat plantan jartzeko lana, agiriaren jabe denaren euskara gaitasuna egiaztatzeko, gaur egun diren euskararen ikas-prozesu desberdinetatik atera diren pertsonen (eskola irakaskuntza, helduen euskalduntzea, formakuntza jarraikia...) zertifikazio tresna ofizial baten eskaintzeko eta lan munduan ikasketa horren baliosteko gisan.

Ce travail a été engagé suite à la signature d'une convention entre l'Académie de la langue basque Euskaltzaindia et l'OPLB du 24 janvier 2008, actant le passage de relais entre Euskaltzaindia et l'OPLB concernant l'organisation de l'épreuve de certification. La création de ce dispositif de certification a également été intégrée dès l'année 2008 dans le programme de travail partenarial établi avec la Communauté Autonome d'Euskadi.

Pour mettre en œuvre ce nouveau système de certification, l'OPLB a souhaité s'appuyer sur un partenariat avec le Département Interuniversitaire d'Études Basques fonctionnant sous le double sceau de l'Université de Pau et des Pays de l'Adour et de l'Université Michel de Montaigne Bordeaux 3 (devenue depuis Bordeaux Montaigne). Le partenariat a été concrétisé par la signature le 3 mars 2009 d'une première convention tripartite OPLB / UPPA / Bordeaux Montaigne, ayant pour objectif de certifier le niveau de connaissance de la langue basque des candidats grâce à la création et à l'animation d'un Dispositif de Certification de niveau de langue basque prenant appui sur le CECR et pouvant porter à terme sur les six niveaux (A1-C2), et fixant comme premier objectif pour 2009 l'organisation d'une épreuve de certification de niveau C1 afin d'assurer le relais de l'Académie de la langue basque Euskaltzaindia. Le niveau C1 est celui de l'utilisateur expérimenté et autonome d'une langue, précédant celui de la maîtrise excellente de la langue.

Au terme de la première convention, les partenaires ont décidé de prolonger le partenariat pour la période 2012-2013, puis pour 2014-2015.

2/ Mise en place de la certification de niveau C1

Un Comité de préfiguration composé de représentants de l'OPLB, du Département Interuniversitaire d'Études Basques, d'enseignants de basque (des lycées et collèges) et de représentants d'AEK (l'opérateur de la formation aux adultes à la langue basque) a été installé pour définir le référentiel de certification en langue basque de niveau C1 du Cadre Européen Commun de référence des langues. Il a eu pour objectif d'organiser dès le printemps 2009, une épreuve de certification de niveau C1 afin d'assurer la continuité du dispositif précédent animé par l'Académie de la langue basque.

Lan hori, Euskaltzaindia eta EEPk 2008ko urtarrilaren 24an izenpetu hitzarmenetik landa abiatu zen, zertifikazio proben antolaketaren lekukoa Euskaltzaindiak EEPri pasa ziola adostuz. Zertifikazio dispositiboaren sortzea EEPk Eusko Jaurlaritzarekin duen elkarlan hitzarmenaren 2008 urteko programan txertatu zen ere.

Egiaztatze dispositibo berri horren obratzeko, EEPk Unibertsitate arteko Euskal Ikasketen Departamenduarekiko partaidetzan oinarritu nahi izan du, Pau eta Aturri beheko aldeko herrialdeetako Unibertsitatearen eta Michel de Montaigne Bordeaux 3 Unibertsitatearen (geroztik Bordeaux Montaigne bilakaturia) babes bikoitzaren pean ari dena. 2009ko martxoaren 3an izenpetu zen lehen hitzarmenak formalizatu zuen hiruko partaidetza (EEP/UPPA/ Bordeaux Montaigne) kandidatuen euskara gaitasun mailaren egiaztatzeko, Euskara Gaitasuna Egiaztatzeko Dispositiboaren sortzearen eta animazioaren bidez, EHMBan oinarriturik, epe baten buruan EHMBko 6 maileri dagozkien agiriak sortzeko aukerarekin (A1etik C2ra), eta 2009rako helburu gisa ukanik C1 mailako agiriaren sortzea, Euskaltzaindiak antolatzen zuenari segidaren segurtatzeko. EEMBaren C1 maila, hizkuntza baten erabiltzaile gaituarena da, hain zuzen adituen mailaren aitzinekoa.

Lehen hitzarmena bururatzean, partaideek 2011/2013 urterako luzatzea erabaki zuten eta 2014-2015eko berritzea.

2/C1 mailako agiriaren plantan ezartzea

Batzorde Eratzaile bat sortu zen, EEPko eta Unibertsitate Arteko Euskal Ikasketen Departamenduko ordezkari, euskara irakaslez (lizeo eta kolegioetakoak) eta AEKko ordezkari (helduen euskalduntzeaz arduratzen den egitura) osatua, EEMBko C1 mailako egiaztatze curriculumaren definitzeko. 2009ko udaberrirako, lehen helburutzat ukan zuen C1 mailako azterketa proben antolatzea, lehenagotik Euskaltzaindiak antolatua zuen dispositibotik lekora, jarraipenaren segurtatzeko gisan.

Ce Comité de préfiguration, a produit les éléments suivants concernant le niveau C1 :

- Référentiel du niveau C1 : critères didactiques du niveau C1
- Critères didactiques d'évaluation du niveau C1
- Descriptif des examens écrits et oraux : passation et correction
- Règles annuelles d'organisation
- Règlement annuel de l'examen
- Calendrier annuel des sessions

Les épreuves du certificat de langue basque de niveau C1 ont ainsi été mises en place pour la première fois en 2009, et deux sessions d'épreuves de certification ont été organisées en mai et en septembre. Depuis, chaque année, deux sessions d'épreuves sont organisées, au printemps et à l'automne sur le campus de Bayonne. Le public concerné a essentiellement été composé de lycéens issus des trois filières d'enseignement bilingue (85%) et, dans une moindre mesure, d'adultes en cours d'apprentissage de la langue, ou de bascophones de langue maternelle.

Le contenu des épreuves, les modalités d'organisation, de correction et d'évaluation sont depuis 2009 établis sous la responsabilité d'un Comité Scientifique, qui a pris le relais du Comité de préfiguration, composé de professeurs agrégés du Département Interuniversitaire d'Études Basques, de professeurs certifiés de l'enseignement secondaire des filières publiques, privées et immersives, et de formateurs de l'organisme de formation AEK ; un total de 10 à 14 membres désignés par les partenaires signataires de la convention.

Depuis 2009, un total de 942 candidats s'est présenté en sept ans sur 13 sessions et 525 candidats ont obtenu le certificat :

- 78 reçus sur 155 candidats en 2009
- 72 reçus sur 159 candidats en 2010
- 98 reçus sur 162 candidats en 2011
- 77 reçus sur 123 candidats en 2012
- 75 reçus sur 140 candidats en 2013
- 62 reçus sur 106 présentés en 2014
- 63 reçus sur 103 présentés à première session de 2015

Les procédures d'équivalence avec les certificats de même niveau produits dans la Communauté Autonome d'Euskadi et en Navarre ont été mises en place, pour le certificat de niveau C1, avec les Gouvernements concernés et l'équivalence du certificat a été reconnue respectivement par décrets du 10 mai et du 9 novembre 2010 par la Communauté Autonome Basque et la Communauté Forale de Navarre.

Batzorde Eratzaileak ondoko elementuak ekoiztu dituen C1 mailarako :

- C1 mailako erreferentziala : C1 mailako irizpide didaktikoak
- C1 mailako ebaluazio irizpide didaktikoak
- Azterketa idatzen eta ahozkoen deskribatzaileak : iragan-moldea eta zuzenketa
- Urteko antolakuntza arauak
- Urteko azterketa ereduak
- Urteko egutegia

C1 mailaren egiaztatzeko probak beraz lehen aldiz martxan ezarri ziren 2009an eta urtero bi azterketa deialdi antolatu ziren maiatz eta irailean. Geroztik, urtero, bi azterketa deialdi antolatuak dira, udaberrian eta udazkenean Baionako campusean. Hunkia den publikoa irakaskuntza elebiduneko ikasleek osatzen dute gehienik (%85) eta, hein apalagoan, euskara ikasten ari diren helduek edo euskara etxeko hizkuntza gisa zuten helduek.

2009tik honat, azterketen antolaketa, ebaluazioa eta zuzenketa irizpideak, Batzorde Eratzailearen jarraipena hartu duen Batzorde Zientifiko baten ardurapean egin dira. Honen kide dira Unibertsitatearteko Euskal Ikasketen Departamentuko irakasle agregatuak, bigarren maila publiko, pribatu eta murgiltze ereduko irakasle agiridunak eta AEK formakuntza organismoko irakasleak ; 10 eta 14 pertsona artean, hitzarmenaren izenpetzaileek izendatu zituztenak.

2009tik orotara 942 kandidatuk aurkeztu dute beren burua 7 urtez, 13 deialditan eta 525 kandidatuk eskuratu dute agiria.

- 78 gairitu 155 kandidatutarik 2009an
- 72 gairitu 159 kandidatutarik 2010ean
- 98 gairitu 162 kandidatutarik 2011n
- 77 gairitu 123 kandidatutarik 2012an
- 75 gairitu 140 kandidatutarik 2013an
- 62 gairitu 106 kandidatutarik 2014an
- 63 gairitu 103 kandidatutarik 2015eko lehen deialdian

Euskal autonomia Erkidegoko eta Nafarroako maila bereko agiriakiko baliokidetze prozedurak martxan ezarri ziren dagozkien Gobernuekin eta agirien baliokidetzaren onartu zuten, hurrenez hurren, 2010eko maiatzaren 10ean eta azaroaren 9an Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernu Foralak.

3/Mise en place de la certification de niveau B1

Deux ans après la mise en place du premier niveau, le Conseil d'Administration de l'OPLB du 2 décembre 2011 a décidé de poursuivre le développement de ce dispositif par la mise en place d'un deuxième niveau de certification s'adressant aux personnes en cours d'apprentissage de la langue basque. Il s'agit du niveau B1, qui correspond au niveau seuil pour un visiteur en pays étranger. Ce choix répond à un besoin repéré sur le terrain. En effet, de plus en plus de personnes qui démarrent le processus d'apprentissage, de même que les organismes formateurs ou les prescripteurs de formations professionnelles tels que les collectivités locales, ressentent et expriment le besoin de certifier un niveau inférieur au niveau C1. S'agissant des formations à visée professionnelle, la formation mise en place vise l'atteinte d'un niveau défini de compétence linguistique, et le niveau B1 est le niveau le plus utile aujourd'hui pour valider le niveau acquis par certains personnels en formation à visée professionnelle, par exemple le personnel travaillant avec la petite enfance (ATSEM ou personnels de crèches), qui doivent atteindre le niveau B1. Par ailleurs, les personnes engagées dans l'apprentissage d'initiative personnelle jusqu'au niveau C1, peuvent par l'obtention du certificat intermédiaire de niveau B1, être dynamisées dans leur démarche d'apprentissage.

Suite à la décision du Conseil d'Administration de l'OPLB du 2 décembre 2011 de poursuivre la mise en œuvre des autres niveaux de certification avec l'engagement des travaux de définition du niveau d'examen B1, le Comité Scientifique a travaillé en 2012 à la création d'un référentiel de langue basque de niveau B1, en s'appuyant plus particulièrement sur les services de l'Institut HABE de formation des adultes de la Communauté Autonome Basque. Le Comité scientifique a ainsi produit :

- Référentiel du niveau B1 : critères didactiques du niveau B1
- Critères didactiques d'évaluation du niveau B1
- Descriptif des examens écrits et oraux : passation et correction

En 2013, en étroite collaboration avec l'institut HABE, la poursuite des travaux du Comité scientifique a abouti à la mise en place d'une première session expérimentale de l'examen de niveau B1, non ouverte au grand public, avec 12 candidats volontaires, en formation à la langue basque ou ayant auparavant suivi des formations et ayant un niveau B1 ou B2 supposé (apprenants de cours du soir ou de formation professionnelle continue).

3/B1 mailako agiriaren plantan ezartzea

Lehen maila martxan ezarri ondoren, 2011ko abenduaren 2ko EEPren Administrazio kontseiluak dispositibo honen garatzea erabaki zuen, beste maila baten egiaztatze agiria sortuz, euskararen ikas-prozesuan direnei zuzendua. B1 maila, bisitariak atzerriko herrialde batera joateko behar duen Atalase-mailari dagokio. Hautu hau, terrenoko praktikatik agertu beharrari erantzuteko egin zen. Izan ere, euskara ikasteko bidea abiatzen duten gero eta jende gehiagok, baita formakuntza eragileek ere edo formakuntzara langileak igortzen dituzten erakundeek, tokiko aginteak, adibidez, C1en azpiko egiaztatze maila baten beharra nabaritzen eta adierazten zuten. Formakuntza profesionalaren eremuan, beren lanerako ahozko hizkuntza jakin behar duten langileek guziek, hizkuntza hein bat eskuratzea dute helburu eta usuenean B1 maila eskuratu behar dute lehen haurtaroko eremuan lanean ari direnek (haurtzaindegietako langile, eskoletako haurren laguntzaileek).

Bestalde, ikas-prozesuan beren baitatik abiatzen diren norbanakoak, C1 mailaraino heltzeko bidean, arteko maila bat, hau da, B1 maila eskuratu ondoren, ikasprozesuan dinamizatuak izan daitezke gisa honetan.

2011ko abenduaren 2ko egiaztapen agirien obratzea garatzen jarraitzeko eta B1 mailako agiria plantatzeko erabakiaren ondotik, 2012an Batzorde Zientifikoak B1 mailako hizkuntza erreferentziala sortzeko lana eraman zuen, Eusko Jaurlaritzako HABE instintuarekin partaidetza hertsian.

Gisa honetan Batzorde Zientifikoak honako hauek ekoiztu zituen :

- B1 mailako erreferentziala : B1 mailako irizpide didaktikoak
- B1 mailako ebaluazio irizpide didaktikoak
- Azterketa idatzien eta ahozkoen deskribatzaileak : iragan-moldea eta zuzenketa

2013an, Batzorde Zientifikoaren lanen jarraipenak, azterketa pilotu baten plantan ezartzea ekarri zuen, HABE instintuarekin partaidetza hertsian eta euskara ikasten ari ziren edo lehenago ikasten ari izan eta B1 edo B2 maila zutela pentsa zitekeen pertsonekin (gau-eskoletako edo formakuntza jarraikiko ikasleak). Horren jarraipenean, Batzorde zientifikoak 2014an, beste bi azterketa-saio antolatu zituen, Iparraldeko azterketa zuzentzaileak formatzeko eta zuzenketa irizpideak bateratzeko.

Dans la continuité, deux autres sessions expérimentales ont eu lieu en 2014 afin de former les correcteurs du Pays Basque de France et harmoniser les critères de correction.

Suite à cette expérimentation, l'Assemblée Générale de l'OPLB du 19 mars 2015 a décidé d'ouvrir au grand public l'examen de certification de niveau B1 en 2015, avec l'organisation d'une session annuelle.

Pour ce faire, le Comité Scientifique a produit les éléments supplémentaires suivants :

- Les Règles 2015 d'organisation de l'examen de niveau B1
- Le Règlement 2015 de l'examen de niveau B1
- Le Calendrier des sessions

En mai et juin 2015, 49 candidats se sont présentés aux examens de certification de langue basque de niveau B1, principalement des adultes en formation à la langue basque, issus des formations d'initiative personnelle ou de la formation professionnelle continue, parmi lesquels 40 candidats ont été reçus.

4/Évolution de la loi sur la formation professionnelle, inscription sur la LNI et recensement à l'Inventaire de la CNCP

Les modifications de la loi sur la formation professionnelle (Loi du 5 mars 2014), ont eu pour conséquence la disparition du Dispositif Individuel à la Formation (DIF) pour les salariés du privé et la création à sa place, du Compte personnel de formation (CPF), lié non plus au poste occupé par le salarié, mais à la personne elle-même, qu'elle soit en activité ou en recherche d'emploi, jusqu'à sa retraite.

Désormais, pour pouvoir activer les financements liés au CPF et rouvrir ainsi les droits aux financements de droit commun, la formation demandée doit obligatoirement être certifiante. Cela implique que le certificat visé doit remplir deux conditions, cumulatives :

- il doit être recensé à l'Inventaire des compétences transverses créé depuis janvier 2015 par la Commission nationale de certification professionnelle (CNCP) aux côtés du Répertoire National des Certifications Professionnelles.
- il doit être inscrit sur la liste nationale interprofessionnelle (LNI), fixée par le Comité Paritaire National Emploi Formation (COPANEF).

Esperimentazio horren ondoren, EEPren 2015eko martxoaren 19ko Biltzar Nagusiak erabaki zuen B1 mailako agiriaren eskuratzeko azterketa 2015ean publiko zabalari irekitzea, urteko deialdi bakarrekin.

Karia horretara, Batzorde zientifikoak beste dokumentu hauek ekoiztu zituen :

- B1 mailako azterketaren 2015eko Antolamendu Arauak
- B1 mailako 2015eko Azterketa Eredua
- Urteko egutegia

2015eko maiatz eta ekainean, 49 kandidatuk beren burua aurkeztu dute B1 mailako azterketa deialdian, gehien bat euskara ikasten ari diren helduak, beren baitatik abiatu ikasleak edo formakuntza planen barnean ikasten ari direnak, eta 40k gainditu dute azterketa.

4/ Formakuntza profesionalari buruzko legediaren bilakaera, LZNeen izendatzea eta CNCPren Inbentarioan zerrendatzea

Formakuntza profesionalari buruzko legediaren bilakaerak (2014ko martxoaren 5eko legea), eremu pribatuko langileen *Dispositif Individuel à la Formation (DIF)* tresnaren desagertzea eragin du eta haren ordez *Compte personnel de formation (CPF)* edo Formakuntza Kontu Pertsonala (FKP) sortzea, ez langileari lotua, baizik eta pertsonari berari, lan jardunean izanik ala lan bila, erretreta egunera arte.

Engoitik, FKPar lotu finantzamenduak bideratu ahal izateko, eta beraz, zuzenbide arrunteko finantzamenduak ireki ahal izateko, eskatzen den formakuntzak agiri batera eraman behar du nahi eta nahi ez. Horrek erran nahi du, lortu nahi den agiriak bi baldintza bete behar dituela :

- *Commission nationale de certification professionnelle (CNCP)* erakundeak *Répertoire National des Certifications Professionnelles* deituaren ondoan 2015ean sortu duen zeharkako gaitasunen Inbentarioan zerrendaturik egon behar duela.
- *Comité Paritaire National Emploi Formation (COPANEF)*ak sortu duen Lanbidearteko Zerrenda Nazional (LZN)ean izendaturik egon behar duela.

En conséquence, l'OPLB a engagé les démarches nécessaires concernant ses certifications de niveau C1 et de niveau B1 :

- constitution d'un dossier de présentation de la demande de recensement à l'Inventaire avec :
 - l'élaboration du dossier lui-même
 - la recherche d'une "autorité légitime", puisque la procédure de recensement à l'inventaire rend nécessaire un accompagnement par une « autorité légitime », telle que les départements ministériels, les partenaires sociaux, les chambres consulaires...
 - le recueil de courriers émanant de "parrains", soit employeurs de détenteurs de la certification soit financeurs, qui expliquent en quoi la certification est utile dans un cadre professionnel, afin de notamment, montrer de quelle notoriété bénéficie la certification
- la LNI étant composée, notamment, des Listes Régionales (LRI), fixées par les Comités Paritaires Régionaux Emploi Formation (COPAREF), après avis de la Région:
 - formalisation d'une demande aux coprésidents du COPAREF (CFDT et MEDEF) pour faire inscrire les certificats de langue basque aux Listes Régionales Interprofessionnelles,
 - formalisation d'une demande auprès de la Direction de la Formation Professionnelle Continue du Conseil Régional (Vice-Présidente du Conseil régional d'Aquitaine en charge de la formation professionnelle, DGA et Directeur du Pôle de formation professionnelle continue et de l'apprentissage).

Ce recensement à l'Inventaire de la CNCP permettra également par ailleurs d'ouvrir de nouvelles possibilités de financements de droit commun pour la formation professionnelle en langue basque des salariés en formation continue avec l'ouverture de la ligne de "Période de professionnalisation".

Ondorioz, EEPk beharrezkoak diren urraspideak abiatu ditu C1 eta B1 mailako agiriari buruz :

- Inbentarioan zerrendatzeko eskaera-txosten bat osatuz, gisa honetan :
 - Txostena bera sortuz
 - Inbentarioan zerrendatzeko prozedurak, "legezko autoritate" baten laguntza eskatzen baitu, "legezko autoritate" baten bilatuz, hala nola ministerioetako departamenduak, partaide sozialak edo ekonomia alorreko ganberak...
 - "Babesle" gutunak bilduz, hots, agiridunak direnen enplegatzaileek edo finantzatzaileek igorriak, lan eremuan agiriaren balioa azalduko dutenak eta bereziki erakutsiko dutenak agiriak duen ospea.
- LZNa, Lanbidearteko Eskualdeko Zerrendez (LEZ) osatua baita, azken hauek *Comités Paritaires Régionaux Emploi Formation (COPAREF)*ek Eskualdearen irizpena eskatu ondoan sortuak :
 - Eskaera formala eginez COPAREFeko presidenteei (CFDT eta MEDEF) euskarazko agiriak Lanbidearteko Eskualdeko Zerrendan ager daitezen,
 - Eskaera formala eginez Akitaniako Eskualde Kontseiluko formakuntza jarraikiko Zuzendaritzari (Akitaniako Eskualde Kontseiluko lehendakariorde eta formakuntza jarraikiko arduradunari, Formakuntza Profesional Jarraiki eta apendizgoaren saileko Zuzendari Nagusiordeari eta Zuzendariari)

CNCPren Inbentarioan zerrendatzearen bidez ere bestalde, formakuntza jarraikian diren langileen euskarazko formakuntza profesionala finantzatzeko zuzenbide arrunteko iturri berriak ireki daitezke, "Période de professionnalisation" lerroa irekitzeko aukerarekin.